



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Kezkak

Nondik gatoz, nora goaz galdera filosofikotik hasita, gizakiak beti izan ditu bere kezkak. Eta nafarrok zer erranik ez, buru adina kezka ditugu. Futbolzaleek Osasunaren gainbeherari buruzko kezkan bizi dira azken asteetan. Bortz partidua irabazi gabe eta Bigarren Mailako zuloa gero eta hurbilago. Irurtzun aldean ere gero eta kezka handiagoa dute, azken hilabeteen bizpahiru lurrikara izan baitituzte: eta etxean bertan, ez Turkian, edo Perun, normalean izaten diren bezala. Eta, normala denez, hurbiltasunak kezkak handiagotzen ditu.

Oronoz-Mugairin ere badute kezkatzeko arrazoirik. Jakina denez, N-121 errepidean Zozaiia-Donztebe tartea moldatzeko eta Oronozko saihesbidea egiteko lanean ari dira. Leherketen ondorioz, harritzar handiak herriko etxeen inguruan erortzen ari dira eta noski, herritarrak kezkatuak daude. Arizkungo eskolan ere kezkatuak daude ikasle, irakasle eta gurasoak, ikastetxeak ageri duen egoeragatik.

Iruñeko Gazteluko plazak ere kezkak sortzen ditu: Alkatesari, noz akautuko dugu? Edo, noizbait akautuko dugu? Lanean ari direnei, zein zabortegeitan botako dugu bertan topatzen ditugun aztarna arkeologikoak? Inguruko kafetegietako nagusiei, zein urtetako sanferminetan ireki ahal izanen ditugu terrazak? Sanferminzaleei, non hartuko dugu atseden, Alde Zaharreko eromenaren ondotik? Kabituko ote gara guziak Herriko Etxeko plazan txupinazoaren tenorean? Beraz, kezkak modu guzietakoak izaten ahal dira. Baina, badira nafar guzion ize-nean kezkutzen direnak ere, eta oraingoan ez naiz Miguelico Sanz presidenteaz ari. Erreinu zaharreko neska politenak, erran nahi baita Miss Navarrak, ez du zorterik izan Miss España hautaketan. Ez da hamabi finalisten artean ere sartu sikiera. Baina bera lasai omen dago, eta bere buruaz, edertasunaz eta jakinduriaraz (hori ere puntuatzen omen dute eta) kezkatu beharrean, nafar guziongatik kezkatu omen zen erabakiaren berri jakiterakoan. Milesker, guapa! Ez genuen bertze kezkarik.

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruñea:** Zoe taldea Cotton Club tabernan gaur, 23:30ean.
- **Iruñea:** El Trono de Judas eta Txugale taldeek Jai Alai gaztetxean joko dute bihar, 21:00etan.
- **Iruñea:** Igandean haur kantari txapelketako finala jokatu dute Gaiarre antzokian, 11:00etatik aurrera.
- **Burlata:** Tagore taldea Black Rose tabernan asteartean, 20:30ean.

NAFARROA OINEZ

- **Tutera:** Gaur, 18:30ean, aurtengo Nafarroa Oinez-en aurkezpene jaialdia egingen dute, udal kiroldegian. Gaueko hamarrak arte, musika, dantza eta hitzaldiak izanen dira. Besteak beste, Castejongo eskolako jotak, Jabonero umoristaren txisteak eta San Juango danzanteen erakustaldia izanen dira. Bukatzeko, dantzaldia, Tximeleta taldearekin.
- **Tutera:** Igandean Trikitixa Eguna ospatuko dute. 11:30ean hasita, Auntxa, Barañain, Sakana, Lesaka eta Irats trikitixa eskolako ikasleak Tuterako karriketatik ibiliko dira. 13:30ean, Plaza Berrian elkartuko dira denak.

BERTSOLARIAK

- **Sara:** Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen finalerdia jokatu dute igandean, 16:00etan, Omordia aretoan. Bertsolariak: Estitxu Arozena, Sustrai Colina, Juan Mari Lopez, Aritz Saraguet, Iñigo Ibarra eta Txomin Ezponda.
- **Amikuze:** Bertsolariak ikastolarat kanpainaren baitan, Mizel Mateo, Ekhi Erremundegi, Gillen Hiribarren eta Patxi Iriart bertsolariak ikastolako areto nagusia kantatuko dute ostegunean, 14:00etan.

HITZALDIAK

- **Altsasu:** M^a Luz Alonso irakasleak Amatasuna: aukera edo beharra izenburuko hitzaldia emanen du gaur, 19:00etan, Gure Etxean.
- **Iruñea:** Pedro Esarte idazlea Nafarroako konkistaz solastatuko da gaur, 19:30ean, Nabarrerria zentroan.
- **Garralda:** Pixpi Villanuevak eta Silvia Petrochek Chiapas lurraldeari buruz hitz egingen dute bihar, 20:30ean, Etxabarrengo elkartean.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Haurrentzako antzerki testuen lehiaketako irabazlearen Ordu berdea antzezlanak Nafarroako Antzerki Eskolan taularatu dute bihar eta etzi, 12:00etan eta 18:30ean hurrenez hurren.

ZINEMA

- **Iruñea:** Gaur, Karrikiriren zinemaldiaren baitan, *Chic-ken run* filma emanen dute euskaraz Golem-Baiona zinematokietan, 20:30ean.

LEHIAKETAK

- **Tafalla:** Igandean, Higuera argazki taldeak antolatuta, X. Rally Fotografikoa jokatu dute. Izena 09:30ean eman beharko da, Candaraiz elkartean.
- **Zangoza:** Zangoza Hiria Pop-Rock Lehiaketan izena emateko eta maketak bidaltzeko epea martxoaren 30ean bukatuko da.

BESTELAKOAK


- **Viana:** Erentzun ikastolako antolatuta, XV. Eskulangintza FERIA egingen dute igandean, 11:00etatik aurrera. Bi ordu geroago falkoneria erakustaldia egingen dute, Coso plazan.

an, 11:00etatik aurrera. Bi ordu geroago falkoneria erakustaldia egingen dute, Coso plazan.

► **Iruñea:** Nafarroako euskaldunen eskubideen defentsan

aritzen den Oinarriak elkar-guneak bazkideak behar ditu bere ekimenak aurrera ateratzeko. Izen ematea eta informazioa, 948-220213 telefonoz.

Asteko erakusketa



Kenneth Engblom

Non: Ormolu galerian (Paulino Caballero, 42)

Noiz arte: martxoaren 27a arte.

Ordutegia: Lanegunetan, 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.